



Ertzaintza manifestarien kontra oldartu zen atzo PSOEn egoitzaren aurrean

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 04/11/2023

Palestinarekin elkartasunean eta PSOEn jarrera kolaboratzailea salatzen zuen kontzentrazioaren aurka oldartu eta pertsona bat atxilotu zuen Ertzaintzak.

Atzoko 18:00ak aldera, Gazte Koordinadora Sozialistak deituta, hamarnaka pertsona bildu ziren PSOEn Donostiako egoitzaren aurrean. Antolakundearen arabera "PSOEk gidatzen duen Espainiako ezkerreko gobernua ere NATOk ordezkatzeko duen bloke inperialistarekin lerrokatu da, eta Mendebaldeko oligarkiak Ekialde Hurbilean dituen interesak babestu ditu". Horren harira kontzentrazioa egin zuten atzo eta tentsio momentu batzuen ondoren Ertzaintzak manifestarien aurka jo eta pertsona bat atxilotu zuten.

(Irudia: Gedar)

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/ertzaintzak-psoe-ko-egoitzaren-aurrean